

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

74/2021 Mozioa, urriaren 13koa, Euskadiko eta Arabako ekonomiaren mesedetan doazen ekimen guztiak babesteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urriaren 13an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

74/2021 Mozioa, urriaren 13koa, Euskadiko eta Arabako ekonomiaren mesedetan doazen ekimen guztiak babesteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek euren babesa adierazten diote Innovaraba egitasmoari, bai eta Euskadiko eta Arabako ekonomiaren mesedetan doazen eta gure lurraldera zuzeneko eta zeharkako lanpostua ekartzeko ahalmena duten ekimen publiko zein pribatu edo publiko-pribatu guztiei.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari babesa adierazten diote HEGAN Innovation HUB ekintzailtza-zentroa edo enpresen azeleragailua sortzeko duen partaidetzan. Izan ere, zentro horren xedea da osasunarekin, kirolarekin eta eduki digitalekin lotutako enpresa-egitasmo berriak sustatzea, baztertu gabe ekintzaile berriei laguntza ematen dieten eta lurraldean potentzialtasun handia duten beste industria-sektore batzuk. Sektor horiek laguntza ematen diete tokiko enpresei ere I+D garatzeko eta, hala, enpresa horiek sendotzea eta lanpostuak sortu eta finkatzea sustatzeko, horrek Vitoria-Gasteizen eta Araban aberastasuna sortuko duelako.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 13a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA